



Gernikako Bakearen Museoa


www.museodelapaz.org



Erakusketa iraunkorra

ARIKETA-KOADERNOA

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak



Izen-abizenak

Ikastetxea

Herria

Data





Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo del Apellido Gernika


Aurkibidea

- Ibilbide hezitzailea.....1
- Museora etorri aurretik.....2
- Museoan.....5
 - Bakea.....5
 - Gela urdina.....7
 - Begoñaren etxea.....9
 - Historia gela.....11
 - "Guernica" koadroa.....17
 - Testigantzak.....19
 - Giza eskubideak.....21
- Museoa ikusi ondoren.....23
- Agurra.....25

Eskerrak

2021-2022 ikasturteko Lehen Hezkuntza Graduako 32. taldeko 3. mailako ikasleei (UPV-EHU. Hezkuntza, filosofia eta antropologia fakultatea II. Gipuzkoako campusa).

Gernikako Bakearen Museoan obra hau egiten eta hobetzen lagundu duten guztiei.



Argitaratzailea
Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa

Gernikako Bakearen Museoan barrena

Esku artean duzun ariketa koadernoak Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko haurrekin (10-12 urteko umeak), Gernikako Bakearen Museoko erakusketa iraunkorra aztertzeko proposamenak eskaintzen ditu.

Museo barruan egiteko, koadernoko ariketa gutxi batzuk aukeratzea gomendatzen dizugu. Beste ariketa asko bisita egin aurretik edo ondoren osatu daitezke gure webgunean eta gure sare sozialetan aurkituko dituzun baliabideekin.

Koadernoak tresna pedagogikoa da, eta museoko testuak irakurtzea, ulertzea eta hausnartzea sustatuko du. Aitzitik, ikasleei ariketa guztiak osatzea eskatzen bazaie, luzeegia denez, funtzio pedagogikoa galtzen duela ikusiko duzu.


Gure museoaren eta komunitatearen arteko loturak indartzen jarraitzea da gure helburua, herritartasun kritiko, enpatiko eta solidarioaren eraikuntzan jarrera gogoetatsua sustatuz.

Gure museora etortzeko gonbitea luzatzen dizugu, gure hiriaren iragan hurbila ulertzeko tresna egokia dela baiteritzogu.

Museora etorri aurretik

1. Kokatu mapa honetan:

- Muga egiten duten probintziak
- Probintzien izenak
- Hiriburuak
- Itsasoa
- Gernika-Lumo



es.wikipedia.org/wiki/Plantilla:Mapa_de_localizaci%C3%B3n_de_Pa%C3%ADs_Vasco#/media/Archivo:Pa%C3%ADs_Vasco-loc.svg

2. Zer dakizu Gernika herriaz? Eta Gerra Zibilaz? Zuk dakizuna idatzi, etxean galdetu dezakezu edo interneten begiratu... Galdera hauek lagungarri izan daitezke.

Gernika

- 1-Non dago?
- 2-Zure familiartekorik bizi da bertan edo inguruan?
- 3-Monumentu edo eraikin berezirik du?
- 4-Zer gertatu zen bertan Gerra Zibilean?

Gerra Zibila

- 1-Noiz hasi zen? Eta bukatu?
- 2-Nortzuk borrokatu zuten?
- 3-Zergatik hasi zen?
- 4-Nork irabazi zuen?
- 5-...

Museora etorri aurretik

3. Begiratu argazki hauek (gerra aurrekoak eta oraingoak). Konparatu eta desberdintasunak bilatu. Zer gertatu da horrenbeste aldaketak egoteko?



Udaletxea Foru plazan



Adolfo Urioste kalea



San Juan kalea

Museora etorri aurretik



4. Gernikari buruz galdetu duzunean, ziurrenez herriak jasan zuen bonbardaketa aipatuko zizuten. Orain marraztea tokatzen zaizu.

A: Marraztu hemen zure etxea eta ingurunea orain den bezala.

B: Eta orain marraztu zure etxea eta ingurunea bonbardaketa bat sufritu ondoren.

Nola sentitu zara zure Etxea eta inguru guztia apurtuta eta suntsituta marraztu duzunean?



BAKEA



BAKEA



BAKEA/PAZ jartzen duen panel handi bat aurkitu duzu. Eskuinaldean dauden argazkiei begira jar zaitez. Zeinek ez du Bakea adierazten zuretzat? Zein kenduko zenuke? Zergatik?

GELA URDINEAN



GELA URDINA

Begoñaren etxera sartu aurretik ikusi bideo eta irudi hauek, biziko dugun garaia hobeto ezagutzeko:

- Interneteko bilaketan hau ipini: "Imágenes España años 20-30".



- "Madrid años 30"

<https://www.youtube.com/watch?v=h--3SYytKJk>

Horrela imaginatzen zenituen ala antzinagoko garai bat zeneukan buruan?

BEGOÑAREN ETXEAN



BEGOÑAREN ETXEAN

Denboraren makina izango bagenu, gure aitona-amonak gure adinekoak ziren garaira joango ginateke. Irudimena lanean ipiniko dugu. Horretarako, lehenengo eta behin, lurrean eserita gelako txoko eta gauza guztiak ondo miatuko ditugu: hormako erlojua, ezkontza argazkia, irratia, egurrezko sabaia, abarketak... Ondoren Begoña adi-adi entzungo dugu.

Zer sentitu duzu Begoñaren Etxean egon zarenean?

Poza, adiskidetasuna, maitasuna, lasaitasuna, estutasuna, larrialdia, zoriontasuna, bekaizkeria edo inbidia, gorrotoa, buruhaustea, kezka, beldurra, tristura, mina, atsekabea...

Audiobisualaren lehen partean

Audiobisualaren azken partean

HISTORIA GELA



HISTORIA GELA

Begiratu gela. Nolakoa da zorua? Zer gogorarazi nahi digu?



Begiratu berriz gela honetako zorua. Zer objektu aurkitu duzu?

Objetuak

- Liburua
- Zapata
- ...

Nire etxean badago?



HISTORIA GELA

Bilatu erakusketan gerra hasieran nola banatu zen Espainia politikoki adierazten duen mapa hau. Zein kolore zuen gerran parte hartu zuen talde bakoitzak? Eta nola deitzen zen talde bakoitza?



Lotu data bakoitza egun horretako gertakariarekin.

Data

- 1936/07/18
- 1937/04/26
- 1939/04/01

Gertakaria

- Gerra amaiera. Francoren diktadura hasi
- Gerra hasiera
- Gernikako bonbardaketa

HISTORIA GELA

Argazkiei erreparatu. Zer nolako lanak egiten zituzten emakumeek garai horretan?



HISTORIA GELA

Argazkiei erreparatu. Zer nolako lanak egiten zituzten gizonek?



HISTORIA GELA

Objetuei erreparatu.

Zer da?

Zertarako erabili zuten gerran?



"GUERNICA" KOADROA



1937	1938	1939	1940	1942	1953	1954	1955	1957	1958	1981	1992	
<ul style="list-style-type: none"> • "Guernica" Exposición Universal PARIS 	<ul style="list-style-type: none"> • PARIS • OSLO • COPENHAGUE • ESTOCOLMO • GÖTEBORG • PARIS 	<ul style="list-style-type: none"> • PARIS • MANCHESTER • LONDRES 	<ul style="list-style-type: none"> • N. YORK (MoMa) • LOS ANGELES • SAN FRANCISCO • CHICAGO • N. YORK (MoMa) 	<ul style="list-style-type: none"> • COLUMBUS • CAMBRIDGE (MA) • CHICAGO 	<ul style="list-style-type: none"> • N. YORK (MoMa) 	<ul style="list-style-type: none"> • MILAN • SAO PAULO 	<ul style="list-style-type: none"> • N. YORK (MoMa) 	<ul style="list-style-type: none"> • PARIS • MUNICH • COLONIA • HAMBURGO • BRUSELAS • AMSTERDAM • ESTOCOLMO 	<ul style="list-style-type: none"> • FILADELFIA • CHICAGO • N. YORK (MOMA) 	<ul style="list-style-type: none"> • N. YORK (MoMa) 	<ul style="list-style-type: none"> • MADRID Casón del Buen Retiro (Museo del Prado) 	<ul style="list-style-type: none"> • MADRID (Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía)

"GUERNICA" KOADROA

Aurkitu zezena, zaldia, ihesi doan emakumea, lorea, hildako haurra eta borobiletan sartu.



a. Nork margotu zuen?

b. Noiz margotu zuen?

d. Zein gertaeratan oinarritu zen margoa egiteko?


TESTIGANTZAK




TESTIGANTZAK

Entzun pertsona hauek azaltzen dutena. 1937ko apirilaren 26an bizi izan zutena kontatzen digute.


a. Zerk harritu zaitu gehien?



b. Zer sentitu duzu? Poza, adiskidetasuna, maitasuna, lasaitasuna, estutasuna, larrialdia, zorientasuna, bekaizkeria (inbidia), gorrotoa, kezka, beldurra, tristura, mina, atsekabea...



d. Zer egin dezakezu zure eguneroko bizimoduan horrelakorik berriro gerta ez dadin?



GIZA ESKUBIDEAK



Bizitzari begiratu La mirada a la vida

Libertad La mirada a la libertad



1937ko maiatzaren 26an, Espainiako Errepublikaren Gobernuak koadro mural batzuk bat egiteko erabaki estutu zuten Pablo Picassok, arte horretan udan Parisen bizi zuten Errepublikako Libertaineko pabaiak espainiarren aljerako. Pintura marrazten zuten hain zehar marrazketa liberekin marrazketa egiten, puzeta frantziarrek Gernikako bombardaketaren ondorioak azaltzen zituzten bitartean.

A principios de 1937, el Gobierno de la República Española encargaba a Pablo Picasso la realización de un gran cuadro mural para el pabellón español de la Exposición Internacional de París que tendría lugar en el verano de aquel mismo año. El pintor empezó a trazar sus primeros dibujos referentes al mural el 1 de mayo, justo un día después que la noticia que el bombardeo de Gernika había quedado por la prensa francesa.

GIZA ESKUBIDEAK

Zein hiru Giza Eskubide nabarmentzen dira gela honetan?



Zergatik errespetatu behar ditugu Giza Eskubideak?



Museoa ikusi ondoren



Ezagutzen al duzu Gernikako bonbardaketa aipatzen duen abestirik? Nik Ken Zazpiren “Gernikan” abestia entzutea gomendatzen dizut.

Javier Gardoqui
Josefina Solozabal
Aurelio Legarreta
Catalina Arrieta
Maria Luz Fierro
Agirre hamabi urte
Francisco Araluzea
Neskato erre bat,
Gernikan!

Regina Aldama
Ume identifika ezina
Aurelia Candes Lopez
Clara Zaldunbide
Gorputz zatiak
Germana Basabe
Ormaetxea
Telesforo Elierobarrutia
...



<https://www.youtube.com/watch?v=khk3btyW0Es>

Zer esaten du letrak?

Museoa ikusi ondoren

Museora etorri aurreko ariketak begiratu orain. Zerbait aldatu al da museora etorri aurretik zenekienetik eta orain dakizunera? Zer?



Zer izan da interesgarriena museoan?


Zer izan da gutxien gustatu zaizuna museoan?



Mila esker gure museoa ikustera etortzeagatik. Eta ez ahaztu zure argazkiak gurekin partekatzen!

#museodelapaz





Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

